

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak Lodosako garapen industrialdea desblokeatu eta industrialde berria abian jartzeko lehendabiziko pausoak eman ditu

Hamarkada bateko geldialdiaren ondoren, Manu Ayerdi lehendakariordeak eta Nasuvinsa sozietateak 240.000 metro koadro urbanizatu eta 4,7 milioiko inbertsioa duen egikaritze-plana aurkeztu diete Udalari eta tokiko enpresa-eragileei

Asteartea, 2018.eko irailak 11

Nafarroako Gobernuak Garapen Ekonomikoko lehendakariorde Manu Ayerdi Lodosan aurkeztu ditu gaur Lizarrako Erriberako herri honen garapen industrialdea berraktibatuko duen hirigintza-planaren lehendabiziko pausoak. Nasuvinsa sozietate publikoak bultzaturiko ekintzek hamarkada batez geldirik egon den aurreko Udalez Gaindikoko Plan Sektoriala (UGPS) eta



Bileran egindako atsedendaldia. Erdialdean, José M^a Aierdik, Manu Ayerdi eta Pablo Azcona.

desblokeatu eta industrialde berriaren lehen fasea gauzatzeko lanak abiatuko dituzte, proiektuaren bideragarritasuna bermatuko duen formula batez eta 4.7 milioi euroko inbertsio publikoaren laguntzaz.

Manu Ayerdi lehendakariordeak eta Nasuvinsako zuzendari-kudeatzaile José M^a Aierdik bilera egin dute gaur goizean, Lodosako Kultur Etxeko Lanton aretoan, Pablo Azcona alkatearekin, Udaleko zenbait zinegotzirekin eta tokiko enpresa-eragileekin, lurzoru eta hirigintzako sozietate publikoak landu eta abian jarri duen planaren xehetasun teknikoak ezagutzera emateko.

Lodosako udal mugarteko lurretan, Sartagudarekiko mugan eta autobiderako sarbide zuzenarekin eratuko den Cabizgordo industrialdearen lehen fasea garatzeko tramiteak hasita, proiektuan 240.000 metro koadroko guztizko azalera urbanizatzea aurreikusi da; horietatik, 164.000 metro partzelak egiteko. Lurzorua 28 euro inguruko prezioan merkaturatuko da metro koadroko. Era berean, Nasuvinsak azpiegitura eta hornidurei buruzko proiektuak enkargatu ditu, eta horiek guztiak idazketa fasean daude egun.

“Ebroko ardatzerako mugarría”

Ayerdik nabarmendu duenez, aurreko UGPSa onartu eta hamarkada bateko geldialdiaren ondoren Gobernuak bultzatu eta gaur aurkeztu duen jarduketa hau “garrantzi handiko mugarría da Lodosako garapen industrialerako, izan ere, herri hau Ebroko garapen-ardatzaren eragile nagusietakoa ez ezik, kokaleku estrategikoa izango da Foru Komunitateko berraktibazio sozioekonomikoa bultzatzeko gaitasun handiak dituen eta etengabe suspertzen ari den eskualde honetan”.

Bestalde, Pablo Azcona alkateak azpimarratu du Lodosak Ebroko autobiderako irteeran industrialdea izatea “herri honetan luzaz amestutako proiektua izan dela, eta iraganen izandako fikziozko ikuspegi espansionisten gainetik, orain gauzatzen hasiko dela, pragmatismoa ezaugarri izan duen eta gure eskualdeko egitura ekonomikoaren beharrei eta egiazko errealitateari atxikita egon den kudeaketari esker”.

Hasieran, Nafarroako Gobernuak 2008an onartutako Udalaz Gaindiko Plan Sektorialean (UGPS), milioi bat metro koadro inguru urbanizatzea aurreikusten zen Lodosako industrialde berria antolatzeke, baina neurri horiek –eta aurreikusitako 31,5 milioi euro inguruko inbertsioa– kontuan harturik, proiektua gaindimentsionatuta zegoen orduko eskarirako eta, ondorioz, proiektuaren garapena bideraezina zen. Horren harira, azken hamarkadan ez da ezein jarduketarik gauzatu.

Enpresen eskaria

Foru Exekutiboko Garapen Ekonomikoko Departamentuak, Nasuvinsa hirigintza sozietatearen bitartez, lehen fasea abian jartzeko konpromisoa hartu du, Lodosan finkatzea aurreikusia duten enpresa garrantzitsuen egiazko eskariari erantzunez –Udalarekin eta Nasuvinsa sozietatearekin harremanetan jarri dira, jarduketaz galdezka–, eta honek garapen murriztagoa gauzatzea ahalbidetuko du, baina bideragarritasun osoz eta lanak urtebetetik beherako epean hasteko asmoz.

Krisi ekonomikoak eragindako hamarkada bateko geldialdiaren ondoren, Lodosakoa da Manu Ayerdi buru duen departamentuak eta Nasuvinsak Ebroko eskualdeetan lurzoru industrialak garatzeko eta bertako enpresa txiki eta ertainak bultzatzeko abiarazi duten bigarren jarduketa, duela urtebete Caparrosoko industrialde berria aktibatu ondoren.

